

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ILARDUIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Ilarduiako Administrazio Batzarraren jabetzakoa den eta Ilarduian dagoen higiezia, antzinako kontzeju etxea izeneko, enkante publiko bidez besterentzeko lizitazioa

Ilarduiako Administrazio Batzarrak, Kontzejuaren 2022ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez, Kontzejuaren jabetzako ondasun higiezia besterentzeko enkantea arautuko duen baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria onetsi zuen. Hona hemen:

1. Erakunde esleitzalea

Ilarduiako Administrazio Batzarra.

2. Kontratuaren xedea

Ilarduia herrian dagoen higiezia, Elizalde kaleko 5. zenbakian (01260 Asparrena). Katastroko identifikazioa: etxebizitza. Mehelinak dituen eraikin atxiki bat da, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko solairuan ganbara duena. Azalera: 108,51 m². Katastroko erreferentzia: 090209970000010001LY.

3. Esleitzeko era

Enkantea.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

Lizitazio oinarria 54.022,79 eurokoa izango da, zergak eta gastuak kontuan hartu gabe. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da eskaintza.

5. Bermeak

Behin-behineko berme salbuetsia. Behin betiko bermea esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da (zergak aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea

a) Erakundea: Ilarduiako Administrazio Batzarra.

b) Telefonoa: 688.896.535.

c) Helbide elektronikoa: kontzeju@ilarduia.net.

d) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunaren bezpera.

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

a) Aurkezteko epea: hamabosgarren egunean bukatuko da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula ekonomiko-administratibo partikularren agirian zehaztutakoak.

c) Aurkezpena bidaltzea: posta ziurtatu bidez, Ilarduiako Administrazio Batzarrera bidalia (Keli-zondo 2, Ilarduia, Asparrena, Araba, 01260 PK).

8. Eskaintzak irekitzea

- a) Lekua: Ilarduiako kontzeju aretoan egingo da (Kelizondo 2).
- b) Eguna: proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengo hamaseian, jendaurreko ekitaldian. Egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.
- c) Ordua: 19:00etan.

9. Esleipen irizpideak

Preziorik altuena.

10. Iragarki gastuak

Esleipendunak ordainduko ditu.

Ilarduia, 2023ko urtarrilaren 10a

Lehendakaria

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA